



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 2017KO URRIAREN 6KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Ohiko bilera.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2017.10.06.

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

#### **Bertaratuak:**

Zinegotziak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

#### **Bertaratu ez direnak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.(bere ama hil delakoz). Ondorioz bileraren lehendakaria alkateordea izanen da.

#### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

#### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Vicente Arocena Andueza jauna: Arantzako Arau Susidiarioen aldaketa eskaera.
- 3.-Udaleko Plana esleitzeko pleguen onespena.
- 4.-Abeltzaintzako toki azpiegituren lanen esleipena.
- 5.-Madaleneko Bordako bidea: kontribuzio berezien onespena.
- 6.-Oihan enkanteari buruz.
- 7.-Arantzako Guraso elkarte: diru laguntza eskaera.
- 8.-LGTBI kolektiboari buruzko mozioa.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

#### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2017ko irailaren 11n egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

## **2.-VICENTE AROCENA ANDUEZA JAUNA: ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ESKAERA.**

Ikusirik Vicente Arocena Andueza jaunak aurkeztutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa, 5. poligonoko 347. eta 348. lur zatiak babestu beharreko baso lurra izatetik Gorde Beharreko Ertainekoa Sakabanatutako Etxebizitzen lurak izatera pasatzeko.

Kontuan hartuz egiturazko aldaketa dela proposatutakoa.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen aldeko txostena.

Ikusirik 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena eta honen 49. eta 77. artikulua.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Vicente Arocena Andueza jaunak sustatutako egiturazko aldaketa hasiera batez onartzea.

2) Aipatutako espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako egunkarietan argitaratuta, bizilagunek eta interesdunek egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak eta oharak aurkez ditzaten.

## **3.-UDALEKO PLANA ESLEITZEKO PLEGUEN ONESPENA.**

Nafarroako Gobernuak, 2017ko maiatzaren 24ko akordioaren bidez, onartu du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua eta Arantzako Udalaren artean Udal Plan Orokorra egiteko hitzarmena. Honen bidez 76.000,00 euroko diru laguntza eman du.

Halaber, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko Kontseilariak eta Arantzako Alkateak sinatu dute hitzarmena 2017ko ekainaren 17an.

Ikusirik lana esleitzeko prestatutako pleguak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal Plan Orokorra esleitzeko baldintza pleguak onartzea.

2) Deialdiaren iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea proposamenak aurkezteko epea irekiz.

## **4.-ABELTZAINZAKO TOKI AZPIEGITUREN LANEN ESLEIPENA.**

Jakinarazi da Alkatearen 133/2017 ebazpenaren bidez esleitu direla I.M.Arrixko Igeltseritza S.L. enpresari bi oztopo kanadar jartzeko (Meaka eta Sagargoxo alderdietan), Larrainbora alderdiko oztopo kanadarra moldatzeko eta Madaleneko Bordako bidean hormigoia botatzeko lanak egiteko, 39.006,77 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basartea S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz. Lanak urriaren 31rako bukatuak egon behar dute diru laguntza ez galtzeko. Hori izan da esleipenaren premia.

## **5.-MADALENEKO BORDAKO BIDEA: KONTRIBUZIO BEREZIEN ONESPENA.**

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako 882/2017 ebazpenaren bidez, 2017an abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko deialdi berezia onesten du.



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

Udal honek laguntza eskatu du ondorengo lanak egiteko: 2 oztopo kanadar jartzeko (Meaka eta Sagargoxo alderdian), Larrainborda alderdiko oztopo kanadarra moldatzeko eta Madaleneko Borda bidean hormigoia botatzeko.

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako 1023/2017 ebazpenaren bidez Arantzako Udalari diru laguntza ematen zaio eskatutako obrak burutzeko.

Kontuan hartuz orain arte herrian egin diren pisten obrak Udala eta herritarren artean egin direla, 2017ko irailaren 11n egindako bileran erabaki zen Aientsa auzoko baserri guztiekin bilera egitea irailaren 15ean, arratsaldeko 19:00etan.

Bilera egin zen eta bertan garbi gelditu zen baserri bakoitzeko adarra edo zatia ez dela orain arte auzotarren artean finantziatu bidea ailegatzeko den baserriko jabeen artean baizik.

Madaleneko Borda eta Bordatxiki baserrietako jabeekin bilera egin ondoren, Bordatxiki baserriko jabeak Madaleneko Bordaraino hormigoia botatzeko zatian ez duela parte hartuko adierazi zuen.

Madaleneko Bordako jabeak prest agertu dira bidean hormigoia botatzeko diru laguntzatik kanpoko gastua Udala eta euren artean (erdi bana) egiteko, teknikoaren gastuak barne.

Toki Ogasun buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen 109. artikulua eta hurrengoak ezarritakoari jarraituz.

Ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Madaleneko Borda baserriko bidean hormigoia botatzeko lanak egiteko Nafarroako Gobernuak emanen duen diru laguntzatik kanpo geratzen den gastoaren %50 estaltzeko kontribuzio bereziak onartzea.

2) Kontribuzio berezien espedientea jendaurrean jartzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta hogeita hamar eguneko epea irekitzea aztertu eta egoki juzkatzen dituzten alegazioak aurkezteko.

### **6.-OIHAN ENKANTEARI BURUZ.**

2017ko irailaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen herriko oihan aprobetxamendua egiteko enkantearen iragarkia.

Halaber Nafarroako Kontratazioaren Atarian ere argitaratu zen deialdia.

Epean barne ez da proposamenik aurkeztu.

Kontuan izanik aprobetxamendu hau entresaka zela eta matarrasa egitea komenigarria ikusten dela.

Kontuan hartuz Nafarroako Gobernuari baimena eskatua dela aprobetxamendu hori egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Egindako oihan enkantearen deialdia bertan behera uztea.

2) Deialdia berria egitea aprobetxamendu handiagoa sartuz.

### **7.-ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Arantzako Guraso Elkarteak aurkeztutako idatzia, 2018ko aurrekontuan partida bat izateko eskatuz Eguberrietako eta bestetako haurren ekitaldietako gastuen erdia ordaintzeko.

Eskaeran aipatzen da 500,00 euro gastu izanen dela baino argitu gabe hori Udalaren kontura izanen den dena edo bien artekoa den.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako eskaera argitzeko eskatzea.
- 2) Akordio hau Arantzako Guraso Elkarteari jakinaraztea.

## **8.-LGTBI KOLEKTIBOARI BURUZKO MOZIOA.**

Ikusirik LGTBI Kolektiboaren mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Beharrezkoak diren baliabideak erabiliaz LGTBI+ pertsonentzako berdintasun sozialerako foru lege berria garatzera premiatzea.
- 2) Eskubide berdintasunerako eta orientazio sexualagatik edota sexu eta genero identitateagatik ez diskriminatzearen alde lan egiteko konpromezua hartzea, horretarako beharrezkoak diren diskriminazio egoerak ezabatzeko ekintzak sustatuz, ereduzko erakunde izanez.
- 3) Modu batez edo bestez haien kondizio sexuala edota genero eta sexu identitateagatik agresioak jasan, gutxietxiak edo diskriminatuak izan diren pertsonekin elkartasuna erakustea. Honela, benetazko eta eraginkorra den berdintasunaren kontra doazen ekintza sozial eta politiko guztiak arbuatzen ditu.

## **9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 118. ebazpenetik 134. ebazpena arte.

## **10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

## **11.-2017KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA**

Ikusirik ANIMSA enpresak igorritako idatzia, administrazio elektronikoa martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak eta azpiegituren kostoa eta aurrekontua.

Kontuan hartuz ez dela partidarik lanak burutzeko.

Kontuan hartuz 2016ko kontuan itxi ondoren izandako soberakina.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2017ko aurrekontuaren 4. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 2) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliiodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

## **12.-2017KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA**

Nafarroako Gobernuak, 2017ko maiatzaren 24ko akordioaren bidez, onartu du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua eta Arantzako Udalaren



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

artean Udal Plan Orokorra egiteko hitzarmena. Honen bidez 76.000,00 euroko diru laguntza eman du.

Ikusirik Udal Plana 2017. urtean esleitu behar dela eta zati bat esleitu eta ordaindu ere. Kontuan hartuz ez dela partidarik lanak burutzeko.

Kontuan hartuz 2016ko kontuan itxi ondoren izandako soberakina.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2017ko aurrekontuaren 5. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.

2) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



